



**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA** Aurrera Futbol taldeak Portugaleteren kontra Ondarroan izango duen futbol partidua dela eta

Mugimendu feministak mobilizazio ugari egin ditu Paul Abasolo Amantegiren indultu partzialaren kontra. Izan ere, abenduaren 16ko 1808/2011 Errege Dekretuaren arabera, 2012ko urtarrilaren 20an BOEn argitaratua, Gobernu Espainiarrak Paul Abasolo indultatu zuen, orain arte sexu erasoengatik indultatua izan den bakarra. Gogora ekarri behar dugu, 2008an Epaitegi Penalak bi zigorretara kondenatu zuela, guztira 3 urte eta 3 hilabeteko espetxe zigorra ezarri. Ertzaintzak bost delituengatik akusatu bazuen ere, soilik lau delituengatik izan zen epaitua, erasotu bat ez zelako epaiketara gerturatu. 2010ean Bizkaiko Entzutegi Probintzialak aipatutako kondena hori berretsi zuen, eta horrez gain, kalte ordaina ordaintzeko eta urruntzeko agindua ezarri.

Aipatutako indultuak erreakzio ugari izan zuen bai erakundeen aldetik, -esate baterako Durangoko Udala mozio baten bitartez horren aurka agertu zen-, zein kirol eremutik asko eta asko izan ziren kontra agertu zirenak. Hala eta guztiz ere, Portugaleteko klubak fitxatu zuen eta erantzun politiko, kirol munduko, sozialak eta Mugimendu Feministaren salaketak alde batera utziz, bere fitxaketa politikarekin jarraitzea erabaki du.

Erakundeetatik geure ardura sozial eta politikoa onartu behar dugu eta gure jardueraren erdigunean jarri behar dugu indarkeria sexista mota guztiak errotik suntsitzeko ahalegina. Ildo horretatik, jendarte osoaren aurrean berdintasun politikaren eredu bihurtu eta emakumeen aurkako erasoak baimentzen eta legitimatzen dituzten jarrera eta portaeren aurrean erantzun tinkoa emateko ardura dauka Udalak. Aldi berean, futbol klubak, oihartzun publikoa duten heinean, erantzukizun soziala dute bai-eta neska mutilentzako adibide eta eredia direlako.

2016ko irailean Ondarroako emakumeen Udal berdintasun Kontseiluak jakin zuen, Aurrera taldeak eta Portugalete klubak, liga bereran izanda, gure herrian izango zutela partidua. Orduetik hona Aurrera taldearekin etengabeko harremana mantendu du Udalak erantzun komuna bilatzeko asmoz eta indarkeria sexistaren aurrean dagokion erantzukizuna hartu nahian.

Ildo horretatik, Portugalete Aurrera Futbol Taldearen kontra gure herrian, Ondarroan, izango den futbol partiduaren aurrean, eta Ondarroako emakumeen udal Kontseiluarekin adostuta, Ondarroako Udalak honako adierazpen hauek egiten ditu:

- Espainiako Gobernuak Paul Abasolo Amantegiri 2006 eta 2007. Urteetan Gernikako kaleetan hiru emakume erasotzeagatik jasotako indultu partzialaren kontra agertzen da bai-eta Portugalete Futbol Klubaren fitxaje politikaren kontra ere, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aurrean atzerapausoa delako eta emakumeon duintasunaren kontrakoa delako
- Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen memoria, aitortza eta erreperazioaren eskubideen harira, Ondarroako Udalak bere gaitzespen irmoa erakusten du indarkeria sexistako agerpen mota guztien aurrean; erasotzaileak baztertuz eta erosotuei babesa eta elkartasun osoa adierazten.

UDAL BERTINTASUN SAILA

☎ 94 683 3670 Faxe: 94 683 3667 emakume@ondarroakoudala.net

Musika plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia



2017/01/19 Osoko Bilkura



- Herritarrak gonbidatzen ditugu konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzera, emakumeen eta gizonezkoen berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista/matxista gaitzesteko ere.
- Eta, era berean, Udalak dei egiten dio herritar guztiei bat egiteko otsailaren 4an indarkeria matxistaren kontra eta indarkeria horri aurre egiten dioten emakumeekin elkartasuna adierazteko burutu daitezkeen mobilizazioetan parte hartzera.

UDAL BERDINTASUN SAILA

☎ 94 683 3670 Faxe: 94 683 3667 emakume@ondarroakoudala.net  
Musika plaza z/g – 48.700 Ondarroa - Bizkaia